

**GASKONIAKO OKZITANOARENGANDIKAKO
MAILEGUAK EUSKARAZ
(Zuberoako euskalkiaren azterketa bat)**

Donostia, 1990-V-25

Txomin Peillen

Egin dudan ikerlan batez da txosten hau. Etimologia hiztegi bat abiatu omen da, eta horrek aringura bat sor lezake ezen ez baita euskalkika, maileguen monografiarik egin aspaldixkan. Neronek lantxo bat eman nuen Fontes Linguae Vasconum delakoan, zuberostatik abiatuz euskalki horretako gaztelaniazko maileguen nolakotasunak aztertuz. Tesia irakurri nuen egunean Bordeleko Unibertsitatean, Jacques Allières ek aipatu zidan, gaskoin maileguen biltzeko egokitasuna; zoritxarrez elkarrengandik urrunxko ginen lan hori biek egiteko, zorionez, haren ikasle izana eta oraintxe lankide eta gaskoin erakasle den Salles-Loustau jaunak, mailegu batzuen segetuak zulatzen lagundu nau, eta oroz gain beraien okzitano grafia berriari ipintzen Eskerrak zor dizkiot hari bai eta euskalzale ta erromanista izan diren H. Gavel, R. Lafon, J. Allières-ei ere. Hona lan honen laburpena:

1. *Hitzaurrea*

Bederatzi orrialdetan zuberoraren eremua mugatzen dut eta aipatzen gure probintzia horretan mintzatzen diren bi euskalkiak eta okzitanoaren gaskoin dialektoa hitzegiten duten herriak. Zuberotarren poliglosiaz Bela-k eta Egiategi-k egin aipamenak ematen ditut eta gaur gaskoin hitzen edo hizketaren sei erabilpen motak sailkatzen. Zuberoraren ezaugarri nagusiak azaltzen ditut.

2. *Metodologia hamar orrialdetan, lehenik. Iturriak*

1.a) Euskarazko eta idatzitakoak.

—P. Lhande, J. Larrasquet, J. Epherre, J. Casenave-ren hiztegiak arakatu ditut.

– Herri literatura idatzia: XVIII. mendeko astolaster ta trajikomeriak, XX.m Allande Elixagaraien ipuinak.

– Medikuntzako testu zaharrak eta berriagoak (XVIII-XX.m.raino).

1.b) Euskarazko lekukotasun mintzatuak eta hitzen kontrola, ama gureari entzunezkoak kanpo, Ligin Dordorruga, Elixagarai ta Axtegin bilduak izan dira eta Santa Grazin Hardoi, Junet, Salaberri, Etxeberri-porta Arrako auzo etxeetan, eta herri medikuntzako grabaketak.

1.c) Okzitanozko iturriak.

– V. Lespy ta S. Palay-en bi gaskoin hiztegiak luzaro arakatu ditut, gure gaskoin itxurazko hitzen etimologiak bilatzeko eta P. Lhande-ren hiztegian, hala hola, agertzen direnak segurtatzeko.

– Jean Salles –Loustau Pabeko fakultatean, okzitano erakasle denak ehun baten bilatzen lagundu nau laurogeitamar bat, aitarik gabeko maileguak geratzen zaizkidalarik.

2. *Sailkapenaren aurkezpena*

Corpus-a honela idatzi dut:

1.ik) Zubererazko hitza Euskaltzaindiko ortografian dago baina aha-lik kontsonante aspiratuak idatziz eta azentua markatuz. Hitzak muga gabea emanik dira. Beharra denean eta ez gehiegi zailtzeko, batzutan gramatika oharra badago edo aditz, izen, adjetibo oharra eta beste.

2.ik) Erabilera (hitzegileekin kontrolatua) eta laburpenez: galdua, ez erabilia, gutxi erabilia, asko erabilia, hapax eta abar.

3.ik) Okzitanozko hitz iturria, lau orrialdetan azaltzen dudalarik horren grafia eta horren ahoskera.

4.ik) Hitzaren frantseseko itzulpena.

5.ik) Dagoenean hitzaren zubererazko sinonimoa.

Lan hau egin dut denbora berean okzitanista ta erromanistentzat eta horregatik Mitxelenak erakutsi bidetik Fonetikarekin ta Hiztegiarekin horien hizkuntza, batean, frantsesez dago ikerlana.

3. *Metodologiaren bi erakuspen gisa*

Bi kasu bereizi ikertzen ditut zailtasunen erakusteko: XVIII. mendeko astolasterretan diren mailegu hitz bereziak.

XVIII. mendeko eta morfopsikologiako testu bateko gaskoin maileguak.

4. *Corpusa ondotik dator: 102 orrialde ditu*5. *Epilogoia edo azterketa (laurogei ta bat orrialdetan)*

5.1. Okzitanotikako maileguak

* Ahozkoen nagusitasuna, idatzizkoen gainean.

* Zubereraz, bearnes menditar auzoei mailegatu zaiela nabari da maiz.

* Zenbakiak eta maileguak.

Hustuketa handia egin dugu, hitz arruntak behintzat gehienak hor daude: denetara 1621 hitz bildu ditugu behin baizik ez badira testu bakan batean agertzen edo behin baizik ez baditugu entzun ere, horietatik 891. gorde dira eta Zuberoa guztian gutxi edo anitz gaur erabiltzen dira: horrek erran nahi baitu zubereratik pasatu diren gaskoin hitzetatik % 54,96 bizirik dirautela nonbait erdiak, besteak osoki galdu.

* Maileguen galeraz edo galtzeaz ohar batzu.

– Galtze hori zubereraren hiztegi orokorra murriztetik hel daiteke.

– Gaskoin-euskara dakiten zuberotarrak, Biarnoko muga herrietatik kanpo, bakandu egin dira.

– Batzutan frantses hitzak gaskoinezkoa galerazi du.

– Hitz horiei lotuak ziren teknikak galdu dira.

– Auzo herrietan gaskoinak beherakada bat ezagutu du.

5.2. Maileguen semantika sailak

1. Hirurogei ta hamazortzi (78) hitzez kanpo denek, sinonimoa zeukaten, batzutan berdina edo askotan ere ñabardurekin bizpahirur sinonimo, hitz elkartu edo esaldiak. Sinonimorik ez dagoenean, gehienetan, *teknika* eta *tresna* hiztegian gaude.

2. Halere maileguak *hitz debekuen* eta *zikinkerien* izendatzeag nagusi dira, bai eta *birauetan* ere, nahiz hor gaztelania buruzagitzen den.

3. *Sukalgintzan*, okzitano maileguak garaile ditugu, eta bereziki goxogigintza eta bazkalondoko zeretan.

4. Ofizio batzutan, oihal ta ehungintzan, altzarigintzan, hargintzan, zurgintzan euskara erdizka iristen da okzitanoarekin.

5. Nekazaritzan tresna asko Biarnotik sartu ziren ezgero, okzitano hitzarekin etorri ziren, gero frantses hitzekin, garia jotzeko “batüsa”,

egurrak trenkatzeko, “tronzoneusa”, gaur ingelesetik bezala *kornkriper*, *raundbolero*, *krip* eta abar.

6. Frantsesek “hitz abstraktu”, deritzenetan okzitanoa gutxi sartu da, gaitzespeneko psikologia deskribapenetan apur bat; erlijio hiztegia, bizpahirur hitz hala nola *kalundje*.

7. Botanikan zoologian, geografian, oso hitz gutxi mailegatu dute zuberotarrek. Zuzenbide hiztegia hamar bat hitz.

5.3. Maileguak eta fonetika

Gaskoinaren fonetikan (okzitanoaren alderantziz) f. guti dagoelarik hitzen hasieran, berdin maileguetan; “r” gutxi dago edo zen gaskoinean hitz baten hasieran, eta maileguetan batere ez da agertzen. Beharbada modaz, joeraz ezpainkari ugari agertzen da -m. -b hitzen hastapenean (132, 112), leherkari gorak, p, t, k (denetara 560) d, g (74, 79) ozenak baino ugariago dira askozaz.

5.4. Dudak Lehenik badaude gaskoinaren itxura daukatenak eta okzitano hiztegieta aurkitzen ez direnak 90 hitz; kasu batzu hartzen ditut banaka, zailtasunen erakusteko

5.4. Maileguen fonetikaren esukalduntzea

/Oe/ jadanik gaskoinek /y/ bilakatzen dute eta hala dator zubererara ta euskalki honek arau berdina aplikatzen dio frantses maileguari zuzenka. Gaskoinak berdin hasierako “r” bati ar- edo er- protesia gaineratzen diolarik euskarari, errazago zaio gaskoinetik hartzea eta zeharbidetako mailegu frango daukagu; berdin hitz bat st- edo/ta -sp hasten delarik gaskoinak e- protesia lotzen baitio, euskarak errez mailegatu dituz horrelako hitzak.

Aintzinako maileguetan —eta gaztelaniatikakoetan berdin— leherkari gorak aspiratu egiten ziren, mailegu berriagoetan ez; gero fonetikako ala jatorrizko planteamendu bat eman ote behar zaio; zubererak ezin onartuzko kontsonantei, hitzen azkenean, m, b, p, ta holakoei baita batzutan t-ri ere zubereroak ü, o bat, u bat, a bat gaineratzen baitu baina denbora berean forma berdintsuak aragonesean ematen baitira eta ez gaskoinean, beste duda iturria daukagu hor.

5.5. Maileguetan semantikazko aldaketak

Hitz batzuen esan nahia hedatu edo estutu egiten da hala nola, *abantxü* (kasi) *aperentzia*, *alegia*. Erran nahi berriak sortzen *zozoa'rentzat* bekatux (gask. *pè a capsùs*), *buruz behera murlas* (ahari arraza) *Munttot*, *Munttaut*, deabruaren gaitzizena.

5.6. Kalkoak eta eratorpenak

Akort eta apart, eskandala txerkha-, mau emplegat esaldiak dira baita *kabarra hüstü* (kalko).

Eratorpenetan, txipigarria -txot(ematxot) izenondotan -us (kürius) egintza atzizkietan -ter, -lant, -dant (gezürter, salhater, ogendant) euskarazko hitzekin erabiltzen direnak, gero okzitanokoak dira, *-aire, -aide aje, -es* eta *-ler*, agian ere *-men* eta *tür?*

5.6. Eredugintza edo semantikazko kalkoa

Euskarazko *ützi, eitzi* semantika alor zabalekoa zen, baina okzitanoaren kontaktuan, euskarak kasuekin eta osagarri motekin, norbait, zerbait, norbaiti, zerbaiti ezar zezakean eta ipintzen zuen lekuan hirur aditz mailegatu dira okzitano ta erroman hizkuntzen kategorietan sartuz, *utzi* zabalaren orde: *abandona-, kita-, pharti-*

Horrelako eredugintza frantsesak eragiten die zuberotarrei eta diglosiaren arazoa eztabaidatzen dugu hor.

5.7. Konotazioak

Gaitzespenezko hitz asko okzitanotik hartzen dira, baina diglosiarik ez denean ere gertatzen direla horrelakoak badakigu: halakoak dira: *afrus, ahul, arrogant, arnegat, bahest, malestrük, maladret, pek* ta beste.

5.8. Hitz arraroak

Okzitanzaleentzat bada zer bildu hitz gutxi erabili, edo hizkuntza hartan hil direnekin, baina ez gara horretan sartu, non ez zen corpus-ean trenkatu beharrik.

5.9. *-Es* herritar atzizki gisa erabiltzea zubereraz

Luzaro aipatzen dugu ez baita gai erraza, gaurko mekanika ez baita agian atzokoa.

6. *Euskal izenen eta hitzen gaskointzea*

Gaskoin formen nagusitasuna aspaldikoa da zentzuak okzitanoz egiten zirelakoz eta azken urte horretaraino euskarazko izena ez baitzen legezko baina okzitanoez eman itxurapean herrien sarreretan. Orain jenderen izenekin, frantsesak dauka eragina, euskaraz hitzegiten denean ere, etxearen izena aski errespetatzen bada, firmakoa frantses ahoskeraz ematen da. Ez da Zuberoako gaitza bakarrik.

7. *Okzitano hitzak beste euskalkietan*

Hasiera batean A letraz hasten ziren hitz zerrendak, Nafarroa Behe-
rekota Lapurdiko ikasleei irakurri nizkien eta gutxi gora behera orrialde
bakoitzean hitz bizietan bat edo bi ez zuten ulertzen; gero hizki berdina-
rentzat Lhanderen hiztegia harturik, ikusi nuen zuberotarrek erabiltzen
ez dituzten hamar bat hitz zeudela okzitanotik lapurdierara iraganak eta
beste horrenbeste eta ez berdinak, behenafarreraz. Ikerlan honetan agertu-
ko ez den sundaketatxoa egin dut Txomin Agirrerren Kresalan eta kontu-
ratu naiz, bakarrik txalupa-ren hiztegian, lau gaskoin hitz zeudela.

Hor ere ikusten da behenafarreraz nekazaritzazko hiztegian dela sar-
tzen gaskoina eta Lapurdi-Gipuzkoan itsas bizitzako tresna hiztegian,
arrainen izenetan eta abar. Gero hurbiltasunak egiten du diferentzia,
ezein Lapurtarrek, Chalosse-koei hartu badiete *koka* hitza zuberotarrek
Biarnoko azpieuskalkiari *piñolet* hartu. Mailegu horien zergatiaz kanpo
beraien balorapena egiten dugu.

8. *Euskara batua ta okzitanoa*

Hor harrigarriago da, ez baitugu benetan Euskara batuaren hiztegi
arruntik Kintanaren eta ekipoaren *Hiztegia 2000ra* jo dut eta A hizkiari
mugatuz konturatu naiz zubereraz bizirik dirauten A-dun 76etatik 70
hor zeudela eta horrez gain lapurtarretik eta gipuzkeratik hartu hitzak,
ezen Euskaltzaindiaren hitzez.

“Euskal hitzak dira euskara bizian sustraiturik daudenak”.

Egia esan, beharrik gabe sartu diren asko, atera direla.

9. *Ondorioz*

Kanpoko zioak aztertzen ditugu: tekniken jatorria, artzainen eta esku-
langileen migrazioak, haurren trukea, komertzioa), gobernu hizkuntza.

Barne zioen artean: azpimarratu dugu ereduak (eskolan ikasitakoak
prestijiozko hizkuntzaren) garrantzia eta ez beti beharrezkoak, debekuak
hizkuntzaren zahartzeak, berritzeko eskolarik eza eta abar. Batzutan mai-
legua aberastasuna baita.

